

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2016ko azaroa • 321. alea



20 urte
euskararen
saltsan

PILP
L
34



ORAIN EKONOMIA

Ekonomia *Suspertzeko Plana*

200 milioiko inbertsioa gure enpresetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

**200M€
2015 > 2019**

Industria	
Lehen Sektorea	
Gizarteratzea	
Kultura eta Turismoa	

Pauso bat aurrera

Pausoa: mugimendua sortzen duena.

Auzoko herritarrek euskaraz bizitzea erabaki dute, lehen, bigarren eta azken hitza euskaraz eginez. Astebetez euskarari eusten hasteak, urtetarako arrastoa utziko du. Mugimendua sortzen da, ehunka herritarren erabaki eta ekintzek milaka lagunengatik hitzuntza ohituretan eragina dutenean.

Urratsa; bakoitzak dagoen lekutik ematen duena; norberarena, propioa.

Marisol eta Enriquek euskaltegian izena eman dute, euskara ikasten hasi dira.

Anak bere bilobarekin hitz egiteko euskara ulertu behar duela erabaki du.

Michelle eta Nerea mintzalagun taldean herriko euskaldunen sarea zabaltzen ari dira.

Lutxok hilabetez euskara hutsean bizitzea erabaki du.

Pausoa; kontzienteki egiten dena, norabide batean egiten dena.

Elkarte gastronomikoko batzarrak euskaraz egiten dira orain.

Udalak euskara lan hizkuntza eta herritarrekiko lehenetsunezko komunikazio hizkuntza izango dela erabaki du.

Urratsa; taldean edo bakarka egin daitekeen ibilaldi baten hasiera.

Auzoko harategian euskaraz irakurri daitezke errotoak eta produktuen izenak,



Kevinek lagun euskaldun guztiei esan die berari euskaraz hitz egiteko, ulertzeko gai dela eta entzunez gehiago ikasi nahi duela

**EUSKARAK
365
EGUN**

euskaraz egin ahal izango dira erosketak, harakina ulermena lantzen ari da.

Herriko kirol taldeek euskaraz egongo dituzte entrenamenduak; prestatzaileak euskarazko saioak zuzentzeko gertu daude.

Pausoa; handia edo txikia, baina sendoa, atzera bueltarik ez duena.

Kevinek lagun euskaldun guztiei esan die berari euskaraz hitz egiteko, ulertzeko gai dela eta entzunez gehiago ikasi nahi duela.

Gaizkak prentsaurreko guztiak hasten ditu euskaraz.

Lorea herriko euskaltzaleen elkartera hurbildu da, euskaraz bizitzeko duen ideia bat martxan jartzera.

Pauso bat aurrera emateko garaia da; zuk, nik, hark, haiek, guk euskaraz bizitzeko urratsak emateko.

Pauso bat, bi, hiru, ... milaka urrats emateko ordua da; euskaraz bizi nahi dugunok, euskaraz jakin ez arren gizarte euskaldunago bat desio dutenek, agintariak, herriko elkarteak, ikasle, enpresari, sindikalistak eta langileak; bakoitzak bere lekutik, euskararen herria edukiz betetzeko ekarpena egiteko ordua da.

Euskarak 365 egun ditu, euskaldunok urte osoa pauso berriak emateko.

Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esanena eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soralue, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Gaizka Azkarate **Diseinua:** Iñigo Urribetxebarria **Maketazioa:** Oier Larreategi **Azala:** Pablo Galarra **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



SORALUCEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Euskara aldean, erabili lanean

DANOBATGROUPek euskara eta lan mundua lotzen dituen lehiaketa jarri du martxan. Parte hartzen dutenen artean bi smart-watch zozkatuko dira. Parte hartzeko epea zabalik dago abenduaren 3ra arte.

DANOBATGROUP taldeak euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendu eta sentsibilizazio berezia erakutsi ditu sorreratik. Atxikimendu hori langileei zein gizarteari begirakoa da, eta horrekin lotuta, DANOBATGROUP osatzen duten kooperatiba guztietan euskaraplanak ditu martxan; langileen artean euskararen erabilera areagotzeko, langileen motibazioan eragiteko eta eza-gutza handitzeko.

Salmenten ehuneko handia esportaziora bideratzen du DANOBATGROUPek; eta, bezeroak ez ezik, hornitzaileak, ordezkaritzak, banatzaileak, produkzio-fabrikak... ditu atzerrian. Horiekin guztiekin izaten dituen komunikazioetan hainbat hizkuntza baliatzen ditu, baina ingelesa da nagusi. Halere, gertuago ere, beste hainbatekin komunikatu behar izaten du; hala nola, hornitzaileekin, ikastetxeekin, administrazioarekin... eta, nola ez, kooperati-

betako langileekin. Beraz, euskarak leku garrantzitsua du egunerokoan.

Euskarak ere leku garrantzitsua du DANOBATGROUPen egunerokoan

Baina horretaz gain kooperatiba gisa duen gizarte erantzukizunari erantzunez, euskararekiko konpromisoa adierazi izan du eta gaur egun ere hala egiten jarraitzen du herri mailan egindako hainbat ekimenetan, eta baita kooperatibak kokatuta dauden herrietako eskolekin elkarlanean hainbat ekimen bideratuz, haur eta gaztetxoei lantegian egiten den lanaren berri emateko, eta euskararen garrantzia azpimarratzeko.

Lehiaketa

Aurtengoan, pauso bat haratago emanez,

DANOBATGROUPek lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke webgunea bisitatzera gonbidatuz, eta euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez, LEHIAKETA baten bidez.

Parte hartu lehiaketan eta irabazi zure smart-watch-a

Sartu ariketan, kontsultatu webgunea, sartu hiztegi teknikoan, klikatu Tailerreko Eskuliburu Teknikoan... osatu ariketa eta hartu parte bi smart-watch-en zozketan. Lehiaketako galderetan, kooperatibari buruzko galdera orokor batzuk erantzun behar dira, eta hiztegi teknikoaren gaineko hitz batzuk kontsultatu (hiztegia. danobatgroup.eus).

Aldean dugun euskara hori erabili dezagun lanean, etxean, kalean...



Euskara aldean, erabili lanean

HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi SMART WATCH bat!



www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa.html

*Parte hartzeko epea 2016ko abenduaren 3an, gaueko 12etan itxiko da

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.



“Azoka handitu eta euskaltzaleon topagune bihurtu da”

Jose Felix Azkarate
“Xarra” eta Ubane Uzin



21 urte bete dira aurten Uzin eta Azkaratek Gaztelupeko Hotsak diskoetxea sortu zutela. 20. aldiz parte hartuko dute Durangoko disko eta liburu azokan.

Zertan dihardu Gaztelupe Hotsakek momentu honetan?

Betik martxan gabiltza: diskoak argitaratzen, kontzertuak antolatzen, tarteka liburugintzan ere, gure jarduna dugu... musikagintza aldaketa asko jasaten ari da eta aldaketa hauek gureganatzen ere bagabiltza. Euskal Herritik kanpoko Azoketan ere ibiltzen gara. Ikusi, ikasi eta egin.

21 urte dira diskoetxea sortu zela... gogoratzen duzue musikarekin izandako lehen harremana?

J.F: Nirea etxeko pagarekin diskoak erosten nituenekoa. Beti disfrutatu dut musikarekin, zentzu zabalean hartuta.

“Gure txikitasuna zaindu eta egiten duguna egiten disfrutatzen jarraitzen dugu”

U.U: 15 urte neuzkala Soraluzeko Gazteluxean goi-mailako kontzertuak ikusten nituen eta asko disfrutatzen nuen. Gainera antolatzeko orduan beti zegoen nork lagundu eta horrek irakaspen handia eman zidan gerora musika kudeagintzan aritzeko.

Zeintzuk dira Hotsak-en erronka nagusiak?

J.F: Gaur egun dagoen zurrunbiloan ez

galtzea, deskuidatuz gero inertiak gus-tuko ez duzun lekuan kokatzen zaitu eta. Gure txikitasuna zaindu eta egiten duguna egiten disfrutatzen jarraitzen dugu.

Eta euskarazko musikak ze bilakaera darama?

U.U: Musika gero eta globalizatuagoa dago. Uste dugu rocka, bluesa, jazz edo dena delakoa euskaraz egiteak baduela balio erantsi bat. Dena den, ohitura aldaketak daude eta euskaraz egindakoak ere horretara moldatu behar du.

“Durangoko Azokak, zuzenean saltzeko aukera suposatzen du”

Aurten Durangoko azokara bueltatuko zarete?

J.F: Gu hasieratik joan izan gara Durangoko Azokara. Iaz izan zen kale egin genuen urte bakarra, ez ginen joan euskal produkturik ez geneukalako, batez ere, kanpoko musikariekin aritu baikinen. Parentesia izan zen.

Noiz joan zineten Durangora lehen aldiz?

U.U: Oker ez banago 1995. urtean Moraren diskoa kaleratu eta gero. Stand erdia eta ilusio guztia. Gerora lau stand ere izan ditugu.

Zer suposatu du Durangok Gaztelupeko Hotsakendako?

J.F: Durangoko Azokak zuzenean saltzeko aukera suposatzen du eta horrek urte-

ko ekonomia zuzentzeko oso ondo dator-
torkio gurea moduko enpresa kulturalari.

Zer eramango duzue aurten?

U.U: Beti bezela beteterano eta berrien lanak binilo eta Cdetan. Bide Ertzean taldearen inguruko Jon Eskisabel kazetariak idatzitako liburua eta bitxikerien Cda, Txuma Murugarren bakarlariaren azkena, Neighbor bikoaren bigarrena, Starblues, The Allnighters, Capsula...

Bide Ertzean, Txuma Murugarren, Neighbor, The Allnighters, Capsula...

J.F: Eta Errabal jazz zigeluko katalogoa ere: Juan de Diego Trio, Broken Brothers Brass Band, Marcelo Escrich Silent Trio eta Alberto Arteta Group, RS Faktor, Nevermind Trio, Getxoko Jazzaldiko diskoa...

Zertan aldatu da azoka azken urteotan?

J.F: Azoka handitu egin da eta euskaltzaleen topagune bihurtu. Hasieran, nagusiki salmenta-toki baldin bazen, orain kontzertuak entzun daitezke, hitzaldiak, mahai inguruak, solasaldiak dagoz... Topagune osatuagoa da eta kontutan hartuta txikiteo kulturala egiteko aukera beti izan dela euskaldunen gustukoa...



Batzoki Jatearen plazera, bertatik bertara

eguneko menua
astebaruetan
karta eta raziok

ogiatzekoak eta
hamburgesak
enkaru bereziak

familia eta
lagun arteko
barkariak

Erreserbak:
943 75 20 16

Kontulan aholkularitza
A B O K A T U A K

Errenta aitortpenak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasia
Lan-erloko aholkularitza • Enpresen konstituzio/disoluzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. ezk. 20590 Soraluze • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

“Elkarrizketa elebidunetarako aukerak badaude” A. Gisasola



Arrate Gisasola hitzaldia ematen antzokian.

Horixe izan da EHUko HIZNET hizkuntza-plangintzarako graduondokoa bukatzeko egindako “Guraso ia euskaldunak eta euskara” izeneko sakontze egitasmoaren bitartez jasotako ondorio nagusia. Soraluzeko guraso ia euskaldu-

nek zer pentsatzen duten jakin nahian eta haiek euskararen normalizazioan aktore aktiboago bilakatzeko bideak aztertzeke ekin zion ikerketari Arratek. Guraso ia euskaldunekin eztabaida-taldeak antolatu zituen, han esandakoak aztertu eta “orokorrean emaitza oso positiboak” izan direla dio.

la euskaldunei euskaraz

Guraso euskaldunek guraso ia euskaldunei euskaraz egiteko proiektu pilotua martxan jartzea izango da hurrengo lana, “euskaldun-erdaldun kontzeptuen arteko arrakala gainditzeko urrats txiki bat”. Proiektu pilotuan, interesa azaltzen duten familietan edo eta mendi taldean elkarrizketa elebidunak praktikatzeko bide bat proposatzen da, aurrez adostutako denbora tarte batean eta parte hartze bolondresaren bidez.

Misioetako taldearen diru-bilketa

Asun Gandiagari egokitu zaio misioetako taldeak zozketatu duen saskia. Gaztañerretan gozoak saltzeko jarri zuten postuan, berriz, 1.672 euro jaso dituztela jakinarazi dute. Diru hori Haitira bideratuko dute, hango osasun-etxe bat finantziatzen laguntzeko. Misioetako taldeko kideek eskerrak eman nahi dizkiete herritar guztiei, beste behin, emandako laguntzarengatik.



Lapurretak berriz

Irailean hasi eta azarora bitartean, hainbat lapurreta gertatu dira herrian: irailean Lagun Maitea elkarte gastronomikoan, urrian kiroldegian eta Gaztelupen, eta azaroan, Mariarren harategian sartzeko ahalegina egin dute. Azkena Pil-pileanen Gaztañerretako karpan izan da, sobratutako edari guztiak ostu dizkiete eta. Udalak jakinarazi digunez, Ertzantzak azken hilabeteotan autozko zein oinezko patruilak areagotu ditu.

Bigarren eskuko azoka

Abenduaren 17an, zapatua, goizeko 10:00etatik 14:00etara, bigarren eskuko azoka egingo Plaza Zaharreko karpan, Udaleko ingurumen Sailak antolatuta. Bertan bigarren eskuko materiala saldu edo trukatzeko aukera izango da. Azokan parte hartu edo materiala eman nahi duenak, udaletxera joanda edo ingurumena.soraluzekoudala@gmail.com helbidera idatziz egin dezake eskaria.

FotoNotizia



Ur berria Azkabeittiko iturri zaharretik

Udaletxeko ordezkariak eta mendi-taldeko hainbat lagunek inauguratu zuten azaroaren 19an Azkabeittiko iturri zaharberriua. Aspaldiko urteetan lehortuta egon ostean, iturrira ura bideratu dute berriz eta ingurua egokitu dute udaletxeko brigadako langileek. Iturria, lehenengo aldiz, Soraluzeko kirol-bazkunak inauguratu zuen 1952an. Argazkia: Fernan Oregi.

Elizpe Hertz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortopedia kirurgikoa
- Inplanteak

DOMINERNO BERRIKUSAITIAK
FINANTZAKETA ZURE NELARRIA
KONPROBESORIK GABEKO AURRINKOTUA

Tel: 943 75 25 67
Elizburu: 3. behia, Soraluze

MUTUAILA, PAZI (hasurren arretarako hartz programari)

Wendata

Tel: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

Enkarguak egiten dira
Eramateko prestatzen da
Menu bereziak enkarguz

Berezitasunak:
Ebean egindako
pizzapetak eta
patata frijituek

Bizikaleren gabonetako zozketa

Bizikale merkatarien elkarteak 2.000 euroko balioa duten produktu-sorta zozkatuko du Gabonetan. Produktuok Santa Ana kaleko erakusleihoan jarriko dituzte ikusgai. Zozketa berri, urtarrilaren 13an egingo dute, arratsaldeko 20:00etan, Plaza Berrian. Aurten zaldiko-maldikoa ere ekarriko dute Gabonetan, abenduaren 21etik 31ra bitartean. Txartelak (4 bidaiarekin) Bizikaleko komertzioetan eskuratu ahalko dira, 2,5 euroan prezioan.

Eguneko zentroa abenduaren 1etik aurrera

Udalakiragarri duenez, hasierabatean aurreikusitakoa baino aste batzuk beranduago bada ere, Estaziño kaleko eguneko zentroak abenduaren 1ean zabalduko ditu ateak. Zentroak 20 plaza eskainiko ditu eta dagoeneko aukera dago izena emateko, gizarte zerbitzuetako bulegoan (Irantzu). Aldundiak emandako datuen arabera, Sorluzen 190 pertsona daude mendekotasun graduren batekin.

Pascual Churruca hartzekodunen lehiaketan



Pascual Churruca S.A. lantegiko zuzendaritzak Pil-pileani jakinarazi dionez, enpresa hartzekodunen lehiaketan sartu da: "ahalegin guztiak egin arren ezin izan dugu eragotzi". Datozen egunetan epaileak izendatutako administratzaile konkurtsalak hartuko du lantegiaren ardura, eta bera izango da enpresaren egoera finantzieroa zela bideratuko den erabakiko duena.

Pascual Churruca lantegia Pascual Churruca Berriozabalek sortu zuen gerra aurretik. Lehenengo, berak patentaturiko zaldientzako gomazko perak egiten jardun zuen, eta ondoren, torlojugintzan, gaur egunera arte. Enpresak 30 langiletik gora ditu gaur egun, gehienak soraluzetarrak.

ERNE

“SD EIBAR” BIRUSA HEDATZEN ARI DA...

EIBARRERA ABONATU

Eta **PRIMERAKO AFIZIO BAT** kutsatu

Informatu zaitetz: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831

SDEIBAR

kutsatuzureafizioa

RUPER ORDORIKA

“Disko honetan sentitu dut halako zorabio bat, zorionez”

‘Guria ostatuan’ izena darama Ruper Ordorika musikari oñatiarraren azken diskoak. Hamaika abesti biltzen ditu New Yorken grabatutako horrek; hiru izan ezik, guztiak bereak. Fermin Etxegoien aspaldiko lagun, idazle eta kazetari oñatiarrak elkarrizketatu du Ordorika Bilbon. Disko berriaz aritu dira; eta gehiagoz.

ARGAZKIAK LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKIPRESS
ELKARRIZKETATZAILEA FERMIN ETXEGOIEN

Distantzia laburrean ari zara?

Nik ez dezaket ezer egin arrisurik sentitu gabe, musikalki, nahiz badakidan ari naizela neure ñabardurengatik borrokan, gauza txiki-xoengatik, eta batzuetan horiek oharkabe pasatzen dira, baina denborarekin ikusten dituzu aldaketak eta disko honetan sentitu dut halako zorabio bat behin baino gehiagotan, zorionez.

Ari naiz orbela kentzen, ari naiz nolabait bidea garbitzen. Berrirori grabatu dut zintan eta denok batera, horrek dakarren muga handiarekin. Kontrabaxuarekin gainera, pianoa bertan ere bai. Orduan dena dago lotua, baina horretarako behar da momentu oso ona harrapatu eta musikari handiak. Hori dena joango litzateke esaten duzun norabide horretan. Niretzako “giroa” deituko nukeena oso inportantea da. *Blusean mood* deitzen da. Ze aldartea daukan kantuak... Eta horretan saiatzen naiz, baita zuzenekoetan ere. Esparru horretan sartzean aldatu behar duzu zure aldartea, hori da kontua.

“Ari naiz orbela kentzen, ari naiz nolabait, bidea garbitzen”

Seguruenik hau ezin duzu egin Noruegako Errege (Ni ez naiz Noruegako errege, 1983) edo orduko beste ezein diskorik egin gabe. Badakit hari bat badela. Nire sentimendua da aurrera goazela, aurrera noala. Ezer gutxietsi gabe, e? Batzuetan entzuten ditut orduko piezak, adibidez Nor Da, Dabilen Harria-ko bertsioan (Dabilen Harria, 1998), lehengoan egin zidaten entrebista baten harira, eta zer polita, pentsatu nuen nire buruarentzako, ez baitut kantua entzun, igual, duela hamabost urte. Baina, konparatu gabe, orain bai bilatzen dut lehen esan dizu-



Etxegoien eta Ordorika Bilbon, diskoaren aurkezpen egunean.

dan momentu hori eta topatu egiten dut, inon diren ahalegin guztiak eginda eta askoren laguntzarekin.

Nire ustez, oso seguru zabilta kantaeran...

Ez dakit seguruago nagoen, baina disfrutatzen dut, hori da niretzat aldaketarik handiena. Nire lehendabiziko diskoak oroitzen ditut, niretzako estudioa zen, ez dakit nola esan, tortura bat... Bai, horrela zen. Ez nintzen inoiz ailegatzen nahi nuen lekura, eta poliki-poliki asko ikasi dut eta badut ekipo ona, aritzen naiz anaiarekin ere, lasaiago.

Diskoko lehen esaldia: “Ireki iezadazu atea...” Azken hiruzpalau diskoetan ageri den irudia. Etxe, aterpe edo babes gunea dago eta badago ere norbait ez oso urrun, nahiz eta beti kanpoan eta normalean ate ondoan.

Bai... gure kantutegietan oso gai primordiala da, kantua bera babesleku bezala, musika horretarako baliatzea, betirako gaia; nire kasuan bai, behintzat. Egiten ditudanean keinu horiek, kantu zaharretara. Esaerak, hitzak hemendik eta handik. Horregatik, beti pentsatzen dut talde-lana dela, nire

buruan abiatu, baina gero alor asko ukitzen ditudalako.

Esan daiteke atearena bezalako hitzetan bakardadearen arriskuaz ari zarela, bakardadeak dakarren *horror vacui* delakoaz?

Hori esan daiteke era horretara edo esan daiteke beste era batera, jendarte bateko atal bat izatearen garrantzia, zenbat baliu duen entzungo dizuna izateak, kasu honetan musikari bezala, baina baita irakurriko dizuna ere, edo irrati programa batean entzungo dizuna, edo tabernan bertan...

Ba ez dirudi orain oso distirant gabiltzanik. Ze adibide jarriko dut... Esate baterako, Tapia eta Leturia Bandaren zuzeneko diskoaren grabazio hura. Gogoan dut estudioan bildu zineten koadrila ederra, zazpi lurrealdeetatik ailegatua. Garai hartan, duela 15 bat urte, igual beste batzuk ere ibili ginen, nire kasuan Bilboko Kafe Antzokia abiapuntu hartuta, halako tokien arteko koadrilismo (inter-pueblos) polit berean. Agian gauza izan zena gure lurraldean nolabaiteko itzal bat proiektatzeko, luze-zabal...

Hizkuntza beretik eta kontsumo kulturaletik beretik, gure mundua asko aldatu da. Behin eta berriro esaten dut kontsumitzaile kultural bezala gehienok ez garela euskaldunak, euskaldunak ere ez garela euskaldunak, zeren eta badakizkigu beste hizkuntza batzuk eta baditugu interes unibertsalak.

“Hizkuntza beretik eta kontsumo kulturaletik mundua aldatu da”

Kualitate aldaketa ikaragarri bat gertatzen ari da, konkretuki musikaren munduan eta munduan zehar. Horrek areagotzen du analisiaren zailtasuna, ze da Euskal Herrian gertatzen den zerbait, oso-oso gauza orokorra baizik, eta klaro, horren eragina gurea bezalako esparru batean, hemengo gizartearen euskalduntasunaren barreiatzea da. Seguru naiz badirela oraindik ezagutzen ez ditugun talentuak, baina barreiatuagoak. Gero, hori txertatu behar duzu askoz ere orokorragoa den egoera batean, musikariek oso garai zaila bizi dutela munduan zehar, interpretarean geroa oso zaila dagoelako momentu honetan eta klaro, testuinguru horretan, amateurismotik oso zaila da ateratzea, zeren eta entzuleak, euskalduna izan arren, nahi du bere Spotify-n daukan maiteen pareko zerbait, eta ez du lehenesten gauza bat euskaraz delako. Batzuek bai, baino askok ez, edo ez du bakarrik hori lehenesten.

“Kualitate aldaketa ikaragarri bat gertatzen ari da”

Zorionez musikak atxiki du errebelio nahi hori eta orduan adin gazteko jendeak, normala den bezala, askok nahi dute zerbait berri egin, zerbait apurtu eta bide berrien bila dabiltza. Nireak bezalako gauzak iruditzen zaizkie hor egon direla beti, eta aldiz zuk ikusten duzu zure burua betiko hari finen gainean, oso modu artizanalean ari zarelako eta jende batentzako. Mundu guztira ez zara ailegatzen, inolaz ere, euskaratik. Ezta Euskal Herrian ere, gaur egun. Egia esan, beti bezala. Nik banituen aurretik izen batzuk, nire ustez gailurrean zirenak...

Baina ailegatu zara gailurrera... eta zer deskubritu duzu?



Ruper Ordorika Bilboko Arrikibar Plazan.

Ez dakit ailegatu naizen, baina hau baldin bada, kar, kar, kar... Konturatu naiz zein erlatiboa den hori guztia, baina bueno, pribilegio handi bat bezala bizi dut. Ez badiogu heltzen beste puskari, daukagun pribilegioari, daukagun suerteari, aspaldi utziko genion honelako lanetan ibiltzeari, zeren eta norberak ateratzen ahal dion atarramentua baizik ez du.

Objetiboki, bazterreko lanak dira gizartean.

Jende batek pentsatzen du, halere, bazarela artistabonetan konsagratua... Eta beste askok pentsatzen dute, dugu, ez zarela munduan zehar famatua hizkuntzagatik.

Bueno, nik hori eskertzen dut, hori baldin bada zure... baina horrelako zenbat lagun, zenbat artista, ez ote dauden munduan...

Elkarrizketa osoa PUNTUA aldizkarian (Goiena).

“GURIA OSTATUAN”



- **Argitaratzailea:** Elkar.
- **Musikariak:**
Arkaitz Miner: Biolina, biola eta mandolina. **Ruper Ordorika:** Aho-tsak eta gitarrak. **Jamie Saft:** Pianoa, Hammond-a eta teklatuak. **Tony Scherr:** Kontrabaxua eta gitarra elektrikoa. **Kenny Wollesen:** Bateria, bibrafonoa, perkusioak.

Gaztañerre azoka argazkitan

Gaztañerre azokako hainbat momentu argazkitan jaso ditu Maite Garmendiak.



Armendi Jatetxea

Bukalde tradizionala, eguneko menua eta asteburuetan menu berezia

Burduntzian erretako bildotsa

Etxeko fritoak

Soufflea

Tel.: 943 75 10 02



Hortz klinika

Javier Alonso Mediku Estomatologoa K.Z. 20.000.434

Katia Gustino Odontologoa K.Z. 48.001.541

Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia

Minik gabeko anestesia, odontologia orokorra, protesi finkoa eta mugikorra, odontopediatria, ortodontzia, inplanteak, estetika...



Euskararen Eguna

Abenduaren 3an, zapatua, Pil-pilean Euskara Elkartearen 20. urteurrena ospatzearekin batera, Euskararen Eguneko ekitaldia egingo da Plaza Berrian, "Pauso bat aurrera" lemapean.



Pil-pileaneko zenbait kide abenduaren 3ko kartelak eskuetan dituztela.

Egun osoko egitaraua izango da, gogoeta eta jaia uztartuko dituzten ekimenez osatua, eta adin guztietako jendeak parte hartzeko modukoa.

Eguna hasteko, Batu Sutondora: "Euskara eta gu" gogoeta saioa egingo da elizpean (berogailu eta guzti), elkarren artean hizkuntza-bizipenak trukatzeko. Bitartean, umeez herriko kaleetan Kukumixok egingo duen ginkanan parte hartzeko aukera izango dute. Bazkalurretik, euskalzaileen argazki kolektiboa aterako dute zubian, eta, ostean, kiroldegiko frontoian jarriko dira bazkaltzera. Bazkariaren ostean, taldeak (dagoeneko 10

taldek eman dute izena) kantura aterako dira. Txartelak salgai daude Gaztelupen, Iratxon eta Arranoan, eguaztenera arte.

Ekitaldia plazan

Iluntzeko 19:00etan Euskararen Eguneko ekitaldia egingo da Plaza Berrian (eurria bada, Plaza Zaharreko karpan). Euskal Herriko Euskaltzaleen Topaguneak "Pauso bat aurrera" leloa aukeratu du aurten, euskaraz bizitzeko urratsak proposatu eta zabaltzeko. Ekitaldian herriko hainbat taldek parte hartuko dute eta amaieran aurtengo manifestua irakurriko dute.

Ruper bere taldearekin

Eguneko ekitaldiei amaiera emateko, Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko du antzokian taldekideekin: Arkaitz Míner (gitarra/biolina/mandolina), Hasier Oleaga (bateria/perkusioa) eta Fernando Neira (baxua). "Guria ostatu" izeneko azken diskoko kantuek eskainiko ditu, aurreko diskoetakoekin batera. Antzokian 190 lagunendako lekua izango da. Sarrerak edozeinek eskuratu ahal izango ditu zapatutik aurrera, Gaztelupe tabernan, edo online, Plaentxia.eus-en jarriko den loturaren bitartez.



**TXOKO
KAFETEGIA**

Kalebarreneko
kale kantoian
Tel. 943 75 17 89

Eguneko menua, razioak,
plater konbinatuak,
hanburgesak, ogitartekoak,
gosaria, pizzak...

Enkarguak egiten dira



**MABEL
ILEPAINBEGIA**



Ilearentzako keratina
tratamendua · Depilazioa
Ile-sustrairik gabeko
permanentea · Makilajea
Manikura erdiiraunkorra
Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

Pil-pileanen sailak eta arduradunak

Pil-pileanek aldizkaria argitaratzeaz gain, beste hainbat arlotan euskararen erabilera bultzatzeko lan egiten du, eta herrikoelkarte nagusietako bat bihurtu da.

1996ko urtarrilean AEK euskaltegiko ikasle eta irakasleek Pil-pilean aldizkariaren lehen alea kaleratu zuten. Hogei urte geroago, aldizkariarekin batera, interneteko webgunea ere kudeatzen du, eta komunikabideetako lanez gain, kultura gintzan, sensibiltzazioan eta umeen aisialdian ere aritzen da.

Pil-pilean herriko elkarte nagusietako bat bihurtu baldin bada, hori soraluzetarrengandik, taldeengandik, komertzio eta enpresengandik eta erakunde publikoengandik jaso duen babes eta laguntzaren gatik izan da, eta baita, elkartean jardun duten langile eta boluntarioen inplikazioarengatik ere. Oinarri horrek eman dio Pil-pileani indarra herrian euskararen berreskurapen prozesua garatzeko.



Pil-pileaneko langileak bulegoan.

Elkartea

Arianne Unamuno: "Bidegurutzean gaude"



Datuei begira jarri ezker, badira arduratzeko motiboak. 80. hamarkadatik, herrian euskararen erabilerak gora egin zuen etenik barik, baina 2001etik 2012ra bitartean, joera hori aldatu egin zen eta erabilerak behera egin du: %49tik (2001)

%33ra (2012). Ezagutzari dagokionez, euskaldunen kopuruak behera egin du, ia-euskaldunenak gora eta erdaldun elebazarrenakerebehera. Ia-euskaldunen kopurua hazi izana, eta belaunaldi gazteenetan euskararen ezagutza ia erabatekoa izatea, datu positiboak dira eta aukera handiak eskaintzen dizkigute aprobeztatzen asmatuz gero.

Uste genuen Urkia Zelaira heltzear geundela, baina behelainoa altxatu duenean konturatu gara San Andreseraino jeitsi garela. Lekutan dago lrukurutzeta, baina ez gaude Zeletan ere. Soziolinguistikaren adituak direnek diote ziklo bat amaitu dela eta beste bat hasteko bidegurutzean gaudela, arriskuz eta aukeraz betetako bidegurutzean.



OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, bellatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire heburua familiar ahalki eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

BERGARAN, Amilaga 27an maribi • 617442155 • maribi@oroiole.com

Komunikabide Saila

Egoitz Unamuno



Komunikazioak sekulako garapena izan du azkenengo hogeituroteotan, eta Pil-pileanen komunikabide sailak, bere txikitasunean, esfortzu handia egin du aldaketa horietara egokitzeko. Zalantzarik barik, internetekoa izan da hazkunde handiena izan duen medioa, baita gu-

rean ere. Papera ahaztu barik, Plaentxia.eus-i eta sare sozialei dedikazio handia eskaintzen diegu. Urteotan, herritarren, komertzioen eta erakundeen laguntzari esker, soraluzetarrei euskarazko herri-komunikabide duina eskaintzea lortu dugu, eta zerbitzu hori hobetzeko ahalegina egingo dugu etorkizunean: aldizkaria berrituz, informazioaren kalitatea hobetuz...

DATUAK

Giza-baliabideak:

- Bi kazetari (Egoitz eta Gaizka) lanaldi erdiko dedikazioz eta diseinatzailea (Oier) ordu batzuek.
- Kolaboratzaileak (50): iritzi-emaile, argazkilari, ilustraziogile, berriemaileak...

Produktuak: Pil-pilean hilabetekaria, Plaentxia.eus interneten eta irratsaioak Arraten eta Euskadi Irratian.

Sentsibilizazio Saila

Maialen Elizburu



Berbalagun egitasmoak ibilbide luzea egin du eta euskararen arnagune bihurtu da. Egun, hiru talde daude martxan eta 25 partaide batzen dira astero. Aurrera begira, berba taldeetako partaideak elkarren artean ezagutu eta talde guztien arteko sarea sendotzea nahi genduke.

Auzoko, iaz abiatu genuen. Euskara kohesiorako tresna gisa erabiltzen dugu, euskaratik urrun bizi direnak eta euskaradunak batuz. Auzokoren mezua hizkuntza-aniztasunarena herriko eragileengana eta herritarrengana heltzea nahi genuke, ekimen bateratuak irudikatuz eta burutuz.

Bestalde, herriko elkarte gastronomikotan euskararen erabilera indartzeko egitasmoa eta Irakurri, Gozatu eta Oparitu

ekimena ere kudeatzen ditugu.

DATUAK

Giza-baliabideak: langile bat lanaldi erdiko dedikazioz. Parte hartzaileak eta laguntzaileak.

Berbalagun taldeak: astelehena 11:30/12:30-16:00/17:00, eguena 19:00/20:00.

Auzoko: Martitzenero 15:00/16:30.

Haur eta gazte Saila

Naiara Kortabarria



2008ko udan, lehenengo "Udaleku ibiltarixak" martxan jarri ziren. Bertan jasotako arrakasta eta motibazioa medio Kukumixo aisialdi taldeak bere bideari ekin zion. Hainbat hezitzailez jantzi da aisialdi taldea. Gaztelekuak ere atek zabaldu

zituena, udaleku irekiak antolatzen hasi ginen, formakuntzan aurrerapenak ematen, eragileekin elkarlanean, proiektu ezberdinak jorratzen... Abidibez: euskal aratosteak eta gabonetako proiektua. 2011an salto kualitatibo bat eman genuela esan genezake. Beti balio hezitzaileetan oinarritu izan gara baina haurren eta gazteen parte hartzean sakontzen hasi ginen.

Ordutik, abiada bizia hartu du taldeak eta gaur egun herriko 30 gazte inguru gabiltza gogotsu lanean!

DATUAK

Giza-baliabideak: koordinatzaile bat (Naiara), Gazteleku hezitzaileak (Ion, Markel eta Alana), ludotekako hezitzaileak (Iosu eta Martin) eta asanblada (25 pertsona inguruz osatua)

Kulturgintza Saila

Hogeituroteotan, Pil-pileanek herrian egin diren ekimen kultural garrantzitsuenetan parte hartu edo eragin du, beti ere, euskararen eta euskal kulturaren presentzia indartuz. Gainerako eragileekin elkarlanean, herrian egiten diren jaigiroko hitzordu nagusiak biziberritzeko bitartekoa izan da: Aratosteak, udateko gaueko sua, jaiak, gaztañerre, gabonak... Horrekin batera, hainbat ekimen

lagundu ditu: RK-Zulo, Euskal Jaiak, bertso eskola, Sorapeda... Kultur programazioan euskal sortzaileen lanak herrira ekartzeko ere lan egin du: bertso saioak, antzerkia, musika, literatura... Etorkizunean, aipatutako zereginetan jarraitzearekin batera, euskal kultura belaunaldi gazteei transmititu eta disziplina artistiko ezberdinetan sormena bul-tzatzeko dinamika abiaraztea da elkar-

teak bere buruari jarri dion erronka.

DATUAK

Giza-baliabideak: boluntarioen bitartez auzolanean kudeatzen dugu arlo hau.

Ekimenak: Santa Eskea, bertso saioak, Udate Gaba, jaietako txosnagunea, Gaztañerre kulturala...

Pil-pileanen historia 11 argazkitan

Hamaika argazki aukeratu ditugu Pil-pileanek 20 urteotan egindako ibilbidea ilustratzeko. Elkartearen bitartez antolatu diren ekimen ugarien lagin txiki bat da.



SORRERA
Sorrerako euskaltzale taldea, konprometitu eta kohesionatua.



MARRAZ
Jaietako eta herriko sinbolo nagusienetako bat bihurtu da Marraz Galipoteko.



BAI EUSKARARI
Herriko elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina jendetsuak egin dira.



SUTONDOA
Aldiro euskaltzaletasunaren sua hauspotu egin behar da.



KUKUMIXO
Kukumixo aisialdi taldeak plazaren erdira ekarri ditu umeak eta euskara.

EUSKO LABEL Baimendutako harategia Euskal Okela Carnicería autorizada

Denda
-TIENDA ESPECIALIZADA-

Javier Alberdi
ERRABAL KALEA, 24
TEL. 943 75 19 32



ALDIZKARIA

Aldizkaria izan da elkartearen jendaurreko erreferentzia nagusia.



GABONAK

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera indarra hartzen joan da.



UDATE GABA

Herritarrek sorginekin batera dantza egin dute suaren bueltan.



BERBALAGUNAK

Euskara ikasleei praktikatzeko gunea eskaintzen diete berbalagunek.



AUZOKO

Euskara gure herriaren kohesiorako giltzetako bat da.



HERRIARI BEGIRA

Herriari begiratzeko egoitza paregabea da Gila gainekoa.

IZAGUIRRE
Igeltsaritza

Eraikin berriak - Kalitatezko eraikuntza
 Erretormak - Era guztietako igeltsaritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

ALKARRI
elkarte

www.alkarri.org
 @alkarri@alkarri.org 622 725 557

- Boluntarioen prestakuntza eta antolamendua
- Esku-hartze gerontologiko eta sozialetan programen garatzea
- Esku-hartze psikosoziala egoitza eta eguneko zentroetan
- Gizarte eta kultura animazio zerbitzu pertsonalizatuak

Amets baten historia

Soraluze euskaldunaren ametsa, horixe da mende honen hasieratik herriko euskalzaleen norabidea gidatu duen ortzimuga. Euskaraz bizi zen herria ezagutu zutenek abiatu zuten ekimen euskazalea eta ekimenak belaunaldiz belaunaldi jarraitu du, gaurko egunera arte.

Arianne eta Egoitz Unamunok herrian Aizan den ekimen euskaltzalearen historia jaso dute Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokorako egin duten ikerketa-lanean: argazkiak, protagonisten lekukotasunak eta garaian garaiko euskarazko sormen-lanak. Abenduaren 3anikusgai jarrikoduten "Ametsabidean" erakusketan jasota dago ia mende oso bateko jardunaren historia. Eta, hizkuntza berreskuratzeko egin den ahaleginaren ikuspegi osatuagoa lortzea izan da egileek ikerketa honekin bilatu duten helburua.

Mende hasierakoak dira lehen ekimen euskaltzaleak



Dantzariak Ezozin (1973).

Hizkuntza berreskuratzeko ahalegina Mende hasierakoak dira herriko lehen ekimen euskaltzaleak: euskarazko pregoiak, euskarazko antzezlanak, euskarazko kronikak, euskal dantzak... Abertzaletasuna hedatu ahala, hizkuntza-kontzientzia ere zabalduz zihoan soraluzetarren artean, 36ko gerrak errotik eten zuen arte. Ondorengo bi hamarkadietan euskara galaziaz eta jazarria izan zen, baina, hala ere, 50. hamarraldiaren erdialdera euskaltzaleak burua altxatzen eta berrantolatzen hasi ziren berriz, eta euskararen hauspo izango ziren ekimenak antolatzeari ekin zioten: dantza taldea, ikastola, gau eskolak... Ondoren etorri ziren Urakapin, AEK, Gaztelupeko Hotsak, Pil-pilean, Euskal Herrian Euskaraz eta beste hainbat.



Ikastolako ikasleak (1974).

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak
mug. 635 71 34 06

LEKUKOTASUNAK



Martin Iñurrieta


"Lehen guardia zibilen semiak be euskeraz eitten eben.

Bai ba, euskeraz eitten zan eta! Kanpotik etortzen ziran danak ikasten eben, gutxi ziran eta. Kastellanoak etortzen ziran banaka-banaka, kuadrillan hartzen ziran eta euskeraz ikasten zebeu. Ez zebeu eukitzen beste erremediorikan. Herrixa total euskalduna zan; bai sozialistak, komunistak... euskaldunak ziran."



Jose Mari Igartua

"Guk kalia be ezin givan euskerarik egin, porke tokatzen zan edozein pixkat rejimenekua, "digamos", eta esaten oskuen "que hablemos cristiano".



Lucia Etxabe

"Eren basarriko gurasuaketa bestebatzuk kalekuak, dan-danak euskeraz egitten zebeuak eta erderaz ez zekixenak. Ba, haren umiak eta gaztiak egitten eben dana erderia. Pentsatzen eben euskeria zala basarriku."



Benantzio Iñurrieta


"Maltzatic aurrera euskeriak ez ebalala balixo esaten eben... Euskeriakin urrin ez, baina euskeria galdu dabenakin, inora bez."



Enrike Larrañaga

"Allegro. Hor zeguan euskal girua oso ona. Euskal kantak eta selukako giro euskalduna. Oso giro ona eta

alaia egoten zan. Iriyarena eta kantatzen zebeu. Bixente Olaizola eta Xabier Iñurrieta ziran bikote bat impresionantea. Otsote bat zeguan hor, eta korua oso ona. Allegro, eliza, kooperatiba... giro hortan ni."




Ezozi Zangitu Ikastolako lehenengo irakaslea

"Neretako euskeria Plazentzian heltzia heldu dan mailara, haretzek ilusiñorik gehixen. Behian total zeguan eta. Orduantxe hasi zuan aldapan gora pixkat, ikastoliakin."



Iñaki Iñurrieta Ikastolako zuzendaria eta gau-eskoletako irakaslea

"Oso motibatuta genden ez bakarrik klasiak emoteko, herrixa euskaldundu bihar zan. Pentsatzen genduan urte gutxi kontua zala hori. "Jarri ezker, eingou" esaten genduan. Orduan gauzak hola ikusten ziran. Urte gutxi batzuetan jarri danok hortara eta..."



Etzoz Larrañaga Gau-eskoletako eta ikastolako irakaslea

"Orduan ez genduan kobratzen. Bolondres zan. Apuntatzen ziran mordo bat eta bukatzen zebeu bikin (gelan). Orduan erabaki genuen kobratzia, eta kurtso guztian batutako diruakin, bi pertsona bialdu genituen barnetegi batera, Abaltzisketara."



Maite Etxeberria Euskaltegiko irakaslea eta Urakapineko kidea

"Gu genbizen euskaltegixan baina genbizen Urakapinen, genbizen euskera batzordian... danian genbizen. Orduantxe hasi zan mobi-

mentua, elkartiak, aldizkariak... Plaentzian danon arteko elkarlanian ibiltzen ginan: euskaltegixa, ikastolia, dantza taldia, euskera batzordia... Aprobetxatzen genduzen euskararen inguruan zeren energia danak."



Edu Pombar Pil-pileanen sortzaileetarikoa

"Pil-pileanek lortu duen gauzarik garantzitsuenau hauxe da: euskararekin bakarrik herritar guztiengana heltzea."

BERTSOAK IKASTOLARI

Juan Mari Narbaiza eibartar bertsolariak 1991n Soraluzeko Ametsa Ikastolaren 25. Urteurrena zela eta jarritako bertso sortako hiru ale dira ondorengoak:

Mila bederatzirehuneko hirurogei eta zazpi, urte haietan gure hizkuntza zegon elbarri ta gaizki, ikastola bat martxan hasi zen bera Soraluzen noski, geroztik fruitu onik eman du nahiz eta ez diren aski.

Ikastola hau beti izan da herri osoan graziko, bere barnean hezi bait dira hainbat neska ta mutiko, bestela horren euskal giroan Plaentxi ez zan biziko, hizkuntza asko maitatu arren Euskera lehendabiziko.

Gorputz ta bihotz egingo dugu Ikastolaren defenza, guk zu gabeko herri bat inoiz ezin genezake pentsa, zu hizkuntzaren bizkar hezurra zu hezkuntzaren saihetsa, zuk bihurtuta bait dago egi "Soraluzeko Ametsa".

Doinua: Soraluzeko Musika Eskolak egindakoa.

KLB6
 Kalebarren 6
 943 57 74 26
 Mutikoen eta nesken moda gaztea
 f KLB6
 www.bara-jarkidanda

Pepe Jeans
 BLEND
 TREZ
 MUNICH
 MAISON SCOTCH
 LA FEMME SELON MARIE
 VERO MODA
 new balance

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebrea
 BIOMASA ETA
 EGURREZKO
 galdarekin

fontaneria
San Andres
 iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Zer diote herritarrek?

Zenbait herritar eta adituri Pil-pileanekiko duten lotura eta iritziaren berri emateko eskatu diegu. (Bideoan ere argitaratuko dugunaren lagina da.)



Kike Amonarriz

Pil-pilean entzunda, burura datorkit herri aldizkari saltsero bat, eta Soraluze entzunda, herri bitxi eta maitagarri bat. Pil-pileanek lortu duena izan da euskararen aldeko dinamika iraunkor bat sortzea. Lortu du euskaldunon autoestimua handitzea, euskararen komunitatea trinkotzea eta aldizkariaren bidez erreferentzia komunak sortzea euskaldunen artean.

Soraluzeko gazte guztiek euskaraz dakiten arren, erabileran hutsune handiak ditugu. Aktibatu behar ditugu ahalmen guztiak, euskararen aldeko dinamika soziala eta adostasun soziopolitikoak indartu eta martxan jarri. Lortu behar dugu euskararen erabilera nabarmen handitzea datorren hamarraldian. Eta Soraluze Pil-pilean eragile klabe bat izango da. Zortetik onena eta bizi luzea!




Mikel Leunda

Ekarpen haundia egin dotsa herrixari Pil-pileanek. Euskararen egoerarik gogorrenian egon darian, ezinbestekua izan da gizarte eragileen lana eta horregaittik, Pil-pileanek egiten dabena be ezinbestekua da, herritarrez osatutako gizarte eragilea izanda. Gainera, osagarria da administraziñuak egiten dabena lanakin. Hemezortzi urtitan egindakotik zeozekin harro eta pozik banago, horixe da: euskara elkar-

tiaren eta udalan artian elkarlana aurrera eruatia, udaletxian alderdi bat edo beste bat egonda.

Faltan bilatzen dotena da profesionalizazioa, elkarteko langileen baldintzak hobetu eta egonkortzea, elkartian lana eraginkorragua izan dein. Bittarteko ekonomiko gehixago eskaini biharko gontsakez elkartiari egitura egonkorrago eta profesionalago bat izan deiken.




Jokin Oregi

Aspalditik jasotzen dot aldizkarixa, eta pozgarrixa da, laguntzen dosta herrixekin lotura mantentzen. Nik uste dot prestijioa emoten dotsala hizkuntzari eta arnagune bat eskaintzen doskula.



Elena Perez

Hasieratik jarraitu dut, kolaboratzen zuen lagun bat nuelako bertan, baina harremanik estuena Kukumixoren bitartez izan dut, Mese-deetako jaietan umeekin euskaraz jarduteko aukera eman digu.



Miren Gallastegi

Nik euskeriakin lotzen dot eta ekimen pila batekin. Jentziak

igual ez daki Pil-pileanek antolatzen dittuanik. Nik Kukumixon parte hartzen dot eta Batu Sutondoran; bizipenak konpartitza gustatzen jata.



Itziar Agirre

Nere ahizta bixak parte hartu dabe eta gure dendia ixa Pil-pileanen sedia izan da, eta lokala Maisuen Etxietan zeguan. Motore bat da herrixandako, ekimen pila bat egiten dabelako aldizkarixekin batera.



Iñigo Alberdi

Bazkide izatiaz gain, elkartiakin daukat harreman harreman gertukoena aldizkarixekin da. Etxian jasotzen dot eta herriko berri jakitza pozgarrixa izaten da. Herri moduan elkartu egitten dau.



Domentx Uzin

Nik aldizkarixekin batera ospakizunekin lotzen dot Pil-pilean. Urte osoko egutegixa ospakizunekin betetzen jua da eta horrek euskerazko harreman sariak sendotzen laguntzen dau.

Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea

Erropa
eskaintza
paregabean

943 75 13 45

Motzean

Final-laurdenetako kanporaketa barixakuan

Abenduaren 2an iluntzeko 22:00etan Bankoa Credit Agricole-El Diario Vasco pelota txapelketako final-laurdenetako partiduak jokatuko dira frontoian promesa eta nagusien mailetan.

Laskurainen azken erronka

Ines Laskurain plaentxiarrak Mendaroko giza proba taldean dihardu azken urteotan. Oraingoan Renault 4L autoa tiraka Mendarotik Lizarpe gainera (5 km, %10eko desnibela) eramatea izango da erronka, abenduaren 18an goizeko 11:00etan. "Zatika probatzen ibili gara baina eguna iritsi arte ez dugu jakingo goraino igotzeko gai izango garen ala ez".



Jendetza Riesgo eta Gonzalez-ekin

150 neska-mutilekantzokia bete zuten martitzenean. Errealeko Mikel Gonzalez eta Eibarko Asier Riesgo futbolariak gertuagotik ezagutzeko aukera izan zuten gazttxoenek. Futbolaz, kirol-profesionalaz, eskola-kirolaz, elikaduraz eta euskararen erabileraren garrantziaz mintzatu ziren. Biek hizkuntza ezberdinen arteko bizikidetzaren garrantzia azpimarratu zuten.



"Indarra eta teknika uztartzen dituen kirola da"



Laida oihalean zintzilikatuta.

Laida Tellitu (Gasteiz, 1985)

Duela urte eta erdi lagun batek animatuta hasi zen gasteiztarra aire-akrobaziak praktikatzeko. Behin oihalean igotaez inajitsi dabil orain. Aire-akrobazia ikastaroa martxan jarri du Agurtzane Telleria arrasatearrarekin batera.

Nondik dator ikastaroa emateko ideia?

Aire-akrobaziak praktikatzeko hiriburuetara joan beharra dago eta inguruan egoera berdinean pertsona talde bat zegoela konturatuta okurriratu zitzaidan udaletxeko kirol-arduradunari proposamena egitea. Ikastaroaren helburu nagusiak dira oinarritzko maila lortzea eta teknika hobetzea kirolarekin gozatuz.

Zerk egiten du berezi kirol hau?

Oihalean gora egin eta airean akrobazia ezberdinak egiteko aukera da niri gehien gustatzen zaidana. Indarra eta teknika uztartzen dituen kirol ikusgarria da.

Mugimenduen edertasuna bilatu behar da teknika landuz. Mugimendu batek beste batera eramaten zaitu koreografia baten zatiak bailiran.

Zer lantzen da klasean?


Indarra eta malgutasuna lantzen dira bereziki. Oihalean igotzeko indarra bezain garrantzitsua da malgutasuna. Horrez gain, sormena ere lantzen da kirol honetan ez baitdauka mugarik.

Nork praktikatu dezake?

Edozeinek praktikatu dezake kirol-disziplina, beti ere, norbere mugak zeintzuk diren kontuanizanda. Ikastaroan parte hartzeko 18 urtetik gora izatea ezinbestekoa da.

Zenbat lagunek eman dute izena?

Momentuz 5 laguneko taldea gara eta astelehenetan elkartzen gara 19:00etatik 21:30etara. Oihal bakarra dago eta pertsona gehiagokizena emango balute bigarren talde bat osatuko genuke.



EDURTZA taberna

Ogitartekoak, razioak,
hanburgesak, pintxoak
eta pizzak

Patata tortillak egiten
dira enkarguz

Santa Ana 18
Tel: 943 75 13 83



MENDIZABAL okindegia

Ogia - Prentsa
Gosariak

Astelehenetik ostiraloraz:
08:00 - 13:15 eta 17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak:
08:00 - 13:15

Kalebarren 10 - Tel.: 943 75 13 99

Abesbatzaren kantu-kalejira domekan



Abesbatzaren emanaldia.

Ezoziko Ama abesbatzak kantu-kalejira antolatu du domekan, Santa Zezilia eguna ospatzeko. Abesbatzako kideekin batera edozein herritarrek parte hartu ahal izango du kantu-jiran eta aurreratu dutenez, kantu herrikoak kantatuko dituzte. Gainera, kantarako liburruxkak ere banatuko dituzte.

Abesbatzak 25 urte beteko ditu datorren urtean, eta dagoeneko hasita daude urteurreneko ekimen bereziak prestatzen. Gabonetan antzokian eskaini ohi duten emanaldia, esaterako, kalez kale egingo dute aurten, abenduaren 23an.

Motzean

Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua

Begarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur, azaroak 25, arratsaldeko 8etan, Soroluzeko Andre Mariaren Jasokundearen elizan. Kontzertua orkestrako kide eta Plaentxi herri ikastetxeko irakasle den Leire Ibarzabal bergararrak proposatuta antolatu da, eta Gipuzkoako Haur Minbiziadunen Guraso Elkarte (ASPANOGL) diruz laguntzea du helburu. Ekimenak Udalaren, Parrokiko Taldearen eta Pil-pileanen babesa jaso du.



FotoNotizia



Ikasleen margolanak ikusgai

Krabelin pintura eskolako margolanak ikusgai daude erakusketa-gelan. Bihar, zapatua, izango da azken eguna erakusketa bisitatu ahal izateko 12:00etatik 13:30era bitartean.

Txorimalo lehiaketa

Gaztañerre egunaren bueltan, Ludoteka eta Kukumixok antolatuta Soroluzeko Lehenengo Txorimalo Txapelketa antolatu zuten. Txikien mailan 8 taldek parte hartu zuten eta handien mailan 4 taldek. Argazkian ageri dena, txikien mailan irabazi zuen "Txoriburu" txorimaloa da, Zuhaitz Larrañagak, Aitz Arluziagak, Marian Zhunaulak, Aiora Muguruzak, Ane Bastardok eta Unax Martinezek egin zutena.



**BEGOÑA HERNANDEZ
ESCAURIZA**

URRIAREN 28AN HIL ZEN 79 URTE ZITUELA

*Bizitzari trispa ateratzen jakin zenuen azkenera arte.
Eskerririk asko azken agurrean zuen laguntza eman diguzuen guztioi.*

Etxekoak.

Zorion agurrak



Ainara Gabriela Rosario Moreno
Azaroaren 10ean, urtebete.
Zorionak! Etxekoan partez.



Enaitz Arriola Romero
Azaroan 12an 2 urte!!!
Zorionak!!! Muxu potolo bat
etxeko guztion partez.



Iñigo Arteatz
Azaroaren 9an, 39 urte.
Maitte zaitugun guztion
partez. Muxuak.



Mikel Moreno Burunza
Abenduaren 2an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoan partez.




Miren Osinaga
Abenduaren 11n, 9 urte.
Zorionak!!! Muxu handi
bat familian partetik!!!



Ivan Ayora Plata
Azaroak 30ian 21 urte. Zorionak
engineer! Segi zure irribarriaz gure
bizitzak alaitzen! Milaka muxu
etxekuen eta Maialenen partez!



Markel Lizarralde
Azaroak 10, 5 urte. Zorionak
eta muxu potolo bat maitte
zaitugun guztion partez.



Manex Osinaga
Azaroaren 21ean, 13 urte.
Zorionak!!! Muxu handi
bat familian partetik!!!



Ekain, Aitz eta Naia
Zorionak hirukote!! Urriaren 19an, 4 urte,
27an 5 urte eta 17an 11 urte. Asko maitte
zaituztegu, etxeko guztien partez!!

Urte askotarako!

Zoriondu laqunak eta senitartekoak, lau bide dituzu Pil-pileanen bidez zoriontzeko:

- Watsapa **605706086** zenbakira.
- Webguneko **www.plaentxia.eus/zerbitzuak/zorion-agurrak** helbidean sartu.
- Mezua **aldizkaria@pilpilean.com** helbidera.
- Lokalera ekarri 10.30etik 13:00etara bitartean.

Jaioberrriak



Markel Quintana Fernandez
Azaroaren 4an jaio zen.



Alaitz Soria Tello
Azaroaren 11n jaio zen.



Aritz David Castro Lira
Urriaren 29an jaio zen.



Itoitz Arluziaga Ariznabarreta
Azaroaren 14an jaio zen.

Jaiotakoak eta hildakoak



Imraan El Kamouni Ennaoui
Markel Quintana Fernandez
Alaitz Soria Tello
Aritz David Castro Lira



Begoña Hernandez Escoriaza



J. LUIS ARIZNABARRETA

II. URTEURRENA
2014-12-18

Beti gure bihotzetan

Emaztea, seme-alabak eta familia guztia.

“Munduaren beste puntan nire txokoa egitea lortu dut”

Nerea Iñurrieta
26 urte



Bere lagun Nerea eta Iñakirekin.

Lanak eraman zuen orain urte bete Nerea New Jersey iparraldean dagoen Fair Lawn herrira, Manhattanetik ordu erdira. Familia, lagunak eta kaleko giroa botatzen ditu faltan gehien.

Bakarrik joan zinen Estatu Batuetara?

Hasieran bakarrik etorri nintzen baina ondoren empresa beretik, ULMA Construction, beste bi lankide etorri dira eta poliki-poliki euskaldunen kuadrila egiten ari gara. Zure egoera berdinean dagoen jendea inguruan izatea asko eskertzen da etxetik hain urrunzaudenean.

Nolako izan da aldaketa?

Hasieran kostatzen ziren zitzaidan, neguan iritsi nintzen eta neguak gogorak dira. Bertako jendearen harrera ona izan zen eta horrek asko lagundu zidan. Munduaren beste puntan nire txokoa egitea lortu dudala uste dut.

Zure egoera berdinean dagoen jendea inguruan izatea asko eskertzen da

Nolakoa da zure egunerokoa han?

Asteazken zehar hemen inguruan geratzen naiz eta bizimodu oso arrunta egiten dut. Asteburutan, New Yorkera joateko aprobetxatzen dut gehienetan eta beste hiri batzuk ezagutzeko. Orain Azaroa bukaeran adibidez, Thanksgiving-eko zubia aprobetxatuz, Bostonera hurbilduko gara.

Euskaldunon berri bazuten han?

ULMA enpresa euskalduna denez, lankideek kokatzen dute Euskal Herria mapan, eta asko bisitan etorri izan dira Oñatira, beraz euskal munduarekin lotura ez da berria. Batzuk euskaraz hitz gutxi batzuk esaten ere badakite.

Zer botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunek gain, kaleko giroa dudak barik. Hemen ezta existitzen pin-

txopote edo herriko jairik... Manhattanen bai, baina bestela kalia ezta jende askorik ikusten ta herriko ambientetxua bai botatzen dala faltan.

Nolakoa izan da hauteskunde garaia?

Amerikarrei espektakulua asko gustatzen zaie kanpaina bortitza izan da. New Yorken hauteskundeak eta gero, sekulako manifestazioak egon ziren. Jendeak Trump-i konfiantza botua emon nahi diola dirudi.

Nolako jarrera dute bertakoek polikarekiko?

Oso irekiak dira politikari buruz hitz egiteko garaian. Normala da adibidez lanean batzuk besteari botua nori emon behar dion galdetzea. New Jersey eta New York Demokraten aldeko estatuak dira aspalditik, eta hauteskunde osteko eguna nahiko tristea izan zela esan daiteke.

Amerikarrei espektakulua asko gustatzen zaie, kanpaina bortitza izan da

Trump eta Hilary, a ze pare

Hemen egia esan, bi haustelean irudia oso txarra da, eta Trumpen inguruan gehiago hitz egin bada ere, Clintonek jende asko dauka kontrari. Beraz, bati botua eman baino, besteari zigorra emon nahi izan zaiola esaten da...

Buelatzeko asmoa?

Bai. Esperientzia aberasgarria da, pozik nago eta leku berriak ezagutzeaz gain, asko nago ikasten. Baina ni hangoa naiz eta etapa hau bukatzerakuan gustora bueltatuko naiz etxera. Baina bitartean... hemengua aprobetxatzen!



Euskal Etxean Maritxu Kajoi ospatzen.



Lagunekin afaltzen.



Empire State atzean duela.

TXURRUKA

JATETXEA

Gabonetan, aukeratu etxerako

Sarrerakoak

- Ahate foie grass-a etxean egina 8.00 €
- Arrain eta itsaski zopa 5.00 €
- Bakailuz beteriko pipar beteak 1.70 € (uni)
- Idi buztanez beteriko pipar beteak 1.70 € (uni)
- Txerrikumez beteriko pipar beteak ahuntz gaztarekin 1.70 € (uni)
- Kroketak 0.35 € (uni)
- Frito nahasiak 5.00 €
- Arrain eta itsaski budina 4.50 €

Arrainak

- Legatza saltsan almejekin 11.50 €
- Legatz frijitu betea 9.50 €
- Bakailua saltsan 10.00 €
- Txipiak tintan 10.00 €
- Zapoa amerikar erara ganba eta almejekin 17.00 €

Okelak

- Txahal masailak ardo beltz saltsatan 9.50 €
- Bildotsa saltsan 10.50 €
- Azpizuna eta foiez beteriko hostorea 15.00 €

Eskaera egiteko azken eguna: abenduak 20

Jatetxean jasotzeko egunak: abenduak 24an 11:00etatik 14:00etara.
Ordutegi berdina abenduaren 31an.

Etxera eramango dizugu, 3.50 eurogatik.

Tel. 943 75 15 81

EUSKARAREN EGUNA

Pil-pileanen 20. urteurreneko jaia



Antolatzailea:

Pil-pilean Euskara Elkarte

*20^o urte
euskararen saltzan*

Laguntzaileak



SORALUZKO
UDALA

LABORAL
KUTXA

ABENDUAK 2 Barixakua

17:00
"Naturartea"
tailerra
Plaza Barrixan

ABENDUAK 3 Zapatua

11:00
Gogoeta saio irekia
"Batu Sutondora:
Euskara eta gu"
Eliz-atarian

11:00
Ginkana erraldoia
Kukumixorekin
Plaza Zaharrea hasi
eta kalez kale

13:15
"Ametsa bidean"
Erakusketaren
inagurazioa
Plaza Barrixan

14:00
Euskaltzaleen
argazki erraldoia
Zubi Nagusian

14:30
Kantu-bazkaria
Kiroldegiko frontoian

19.00
Ekitaldi nagusia:
Pauso bat aurrera
Plaza Barrixan

22.30
Ruper Ordorikaren
kontzertua
Antzokian